

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko apirilaren 14a

33. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, familia ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliogabetu eta indarrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak 1974ko abenduaren 28an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren adopziozko seme izendatu baitzen Francisco Franco Bahamonde. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udal langileak euskalduntzeko programen eta euskara teknikarien finantzaketa berma ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gau-eskolen egungo eskaintza eta finantzaketa berma ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Toki Administrazioako Departamentua premiatzen da toki entitateek ematen dituzten zerbitzuak azter ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata pareka ditzan berriz. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodena enpresa publikoari jarraibideak ematera Iberdrolako akziodun izateari utz diezaion. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak hartzera kanpoan bizi diren nafarrek aukera izan dezaten Nafarroako herriaren ordezkariak eta haien proposamen politikoak ezagutzeko. Erretiratutako mozioa (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erabilera publikoko egoitzetan dauden postu hutsak era zentralizatuan kudea ditzan. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaren hitzarmen bat izenpe dezan IPESen Emakumearen Dokumentazio Zentroa eta Liburutegiarekin. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak bazter utzia (10. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—5/2005 Foru Dekretua, urtarrilaren 17koa, zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak berretsia ([11. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, familia ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, familia ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agindu dut. Proiektu hori 2005eko otsailaren 28ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 6an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“3. artikulua. Familia ugarien kontzeptua, baldintzak eta kategoriak.

3.1. Familia ugariaren kontzeptua.

3.1.1. Lege honen ondorioetarako, familia ugaria izanen da aurreko batek edo bik hiru edo seme-alaba gehiagorekin osatutakoa, seme-alabak bi aurrekoenak nahiz bakarrarenak izan.

3.1.2. Lege honen ondorioetarako, familia ugariaren parekotzat joko dira ondokoek osatutakoak:

a) Aurreko batek edo bik bi seme-alabarekin, bienak izan nahiz bakarrarenak izan, seme-alabetako bat ezgaitua denean edo lan egiteko ezintasuna duenean.

b) Bi aurrekoek bi seme-alabarekin, bienak izan nahiz bakarrarenak izan, biak ezgaituak direnean edo bietako batek, gutxienez ere, ehuneko 65 edo gehiagoko ezgaitasun gradua duenean edo lanerako ezintasuna dutenean.

c) Banandutako edo dibortzietutako aitak edo amak, hiru edo seme-alaba gehiago dituztenean, bienak izan nahiz bakarrarenak izan, familia unitate ezberdinetan badaude ere, ekonomikoki haien menpe daudenean, nahiz eta ezkontza-egoitzan ez bizi.

Kasu horretan, familia ugariaren izaera aitordakion eskatzen duen gurasoak, ondorio horietarako proposatuz aintzat hartzeko berarekin bizi ez diren seme-alabak, haiek elikatzeko betebeharrak deklaratzeko duen epaile-ebazpena aurkeztu beharko du.

Familia unitatean aintzat hartu behar diren seme-alabak direla eta gurasoak ados ez badaude, bizikidetasunaren irizpidea aplikatuko da.

d) Bi anaia-arreba edo gehiagok, aitarik eta amarik gabeko umezurtzak direnean, tutorearekin, hartzailarekin edo zaindariarekin bizi direnean baina gastuetarako haren menpe egon gabe.

e) Aitarik eta amarik gabeko hiru anaia-arreba edo gehiagok, 18 urte baino gehiago badituzte, edo bi, baldin eta horietako bat ezgaitua bada, betiere elkarrekin bizi badira eta haien arteko menpetasun ekonomikoa badago.

3.1.3. Lege honen ondorioetarako, aita, ama edo biak batera hartuko dira aurrekotzat, ezkontza-lotura dagoenean, eta, kasua bada, bietariko baten ezkontidea.

Aurrekoaren izaeraren parekotzat joko dira, aurreko lerrokadan aipatzen direnak falta direnean, beren tutoretzapean edo seme-alaben familia harrera iraunkorrean edo adopzioaren aurreko harreran dagoen pertsona edo dauden pertsonak, betiere seme-alabak harekin edo haiekin bizi direnean edo gastuetarako haien menpean daudenean.

3.1.4. Seme-alaben kontsiderazio bera izanen dute tutoretzapean dauden edo legez eraturiko

familia harrera iraunkorraren edo adopzioaren aurreko harreraren egoeran dauden pertsonak.

3.1.5. Lege honen ondorioetarako, ezgaitutzat hartuko da ehuneko 33ko edo gehiagoko minus-balioetasun-gradua aitortua daukan pertsona, eta lanerako ezintasuna duen pertsonatzat hartuko da lanerako gaitasuna lanerako ezintasun iraunkorraren edo baliaezintasun handiaren pareko graduan murriztua duena.

3.2. Familia ugariaren baldintzak.

3.2.1. Familia ugariaren izaera aitortzeko eta familia ugariaren izaera edukitzeko eskubideari eusteko, seme-alabek edo neba-arrebek ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

a) Ezkongabeak izatea eta 21 urte baino gutxiago izatea, edo ezgaituak izatea edo lanerako ezintasuna edukitzea, edozein dela ere haien adina.

Adin muga hori 25 urtera arte luzatuko da seme-alabak beren adinari edo tituluei dagozkien ikasketak egiten ari direnean edo lanpostu bat lortzea xede duten ikasketak egiten ari direnean.

b) Aurrekoarekin edo aurrekoekin bizitzea; hori, halere, ez da eragozpen izanen aurrekoen banatzeko kasuari buruz 2.2.c) artikuluan esaten dena aplikatzeko. Edonola ere, ulertuko da ikasketak egiteko, lan egiteko, tratamendu medikoa hartzeko, errehabilitazioa egiteko edo antzeko arazoietarako aldi baterako bananduta egoteak ez duela hausten gurasoen eta seme-alaben bizikidetasuna, erregelamenduz ezartzen diren terminoetan.

c) Aurrekoaren edo aurrekoen menpetasun ekonomikoa edukitzea. Honakoetan joko da menpetasun ekonomikoari eusten zaiola:

1.a Seme-alabaren dirusarrerak, urte osokoak kontatuta eta aparteko lansariak barne direla, lanbide arteko gutxieneko soldata indarduna baino txikiagoak direnean.

2. 2.a Seme-alabak lanerako ezintasuna duenean eta haren pentsioaren zenbatekoak, halakorik jasotzen badu, ez duenean gaintitzen, urte osokoa kontatuta eta aparteko lansariak barne direla, lanbide arteko gutxieneko soldata indarduna.

3.a Seme-alabak familiaren sostenguan laguntzen duenean eta aurreko bakarra dagoenean, baldin eta azken hori jardunean ez badago, betiere erregelamendu bidez zehazten diren kasu eta baldintzetan.

4. Seme-alabak familiaren sostenguan lagundu eta aita edo ama lanerako ezinduta daudenean,

jubilatuta daudenean edo 65 urte baino gehiago dituztenean, betiere gurasoen dirusarrerak, urte osokoak kontatuta eta aparteko lansariak barne direla, lanbide arteko gutxieneko soldata indarduna gaintitzen ez badute.

3.2.2. Familia unitatearen kideek espainiarrak edo Europar Batasuneko kidea den estatu batekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren Ituneko partaideak diren gainerako estatueta batekoak izan beharko dute eta Espainiako lurraldean bizi, edo, egoitza Europar Batasuneko estatukideren batean edo Europako Esparru Ekonomikoaren Ituneko partaideak diren gainerako estatueta batean baldin badute, familia unitateko aurrekoetako batek Espainian besteren konturako edo norberaren konturako jardueraren bat bete beharko du.

Familia unitateko kideek, beste herrialde batekoak badira, lege honen ondorioetarako, eskubidea izanen dute familia ugariaren izaera aitortzeko espainiarren baldintza beretan, lege honetan aipatzen diren onuretarako eskubidea ematen duten kide guztiak Espainiak bizi badira, betiere Espainiako atzerritarren eskubideei eta libertateei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan ezarritako terminoetan; lege hori abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoaz eta hura garatu zuten arauz aldatu zen.

3.2.3. Lege honen ondorioetarako, inor ere ezin izanen da kontatu aldi berean bi familia unitatetan.

3.3. Familia ugariaren kategoriak.

3.3.1. Familia ugariak, lege honetako 2 eta 3. artikuluetako baldintzak betetzen dituzten seme-alaben kopuruaren arabera, honako kategoria hauetan sailkatuko dira:

a) Berezia: bost seme-alaba edo gehiago dituztenak eta lau seme-alaba dituztenak, horietako hiru gutxienez ere erditze, adopzio nahiz harrera iraunkor edo adopzioaren aurreko harrera multiplearen ondorioa badira.

b) Orokorra: gainerako familia unitateak.

3.3.2. Hala eta guztiz ere, lau seme-alabako familia unitateak kategoria berezian sailkatuko dira beren urteko dirusarrerak zati haiek osatzen dituzten kideak egin eta urtebeteko emaitzek lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko 75 gaintitzen ez dutenean, aparteko lansariak barne direla.

3.3.3. Seme-alaba ezgaitu bakoitza edo lanerako ezintasuna duen bakoitza, 2. artikuluko 5. idatzatian finkaturiko terminoetan, bi balira bezala kontatuko da partaide deneko familia unitatea sailkatuta dagoen kategoria zehazteko garaian.

Zioak: Zioen azalpenari aurkeztutako zuzenketarekin bat etortzeko. Estatuko lege baten artikulua batzuetara besterik gabe igorritz, badirudi aitortzen ari dela Estatuak zilegitasun osoa duela alor hau arautzeko.

2. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13.2.a)a.3 artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Titulua aurkezteak onura eta abantaila batzuk dakarzkie familia ugarietako kideei, baina titulu hori aurkeztu ezean, ezin izanen dituzte eskuratu. Ezin da halakorik arau-haustetzat jo.

3. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13.3.a)a.2 artikulua aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“a.2. b.1 Familia ugarien tituluaren onuradunei dagozkien eskubideetarik bat hilabetea gainditzen ez duen epe baterako bertan behera uztea, betiere arau-haustearen garrantziaren arabera.

Zioak: Testuak interpretazio arbitrarioak eragin litzake arintzat jo daitekeen arau-hauste baterako.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA -NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa. Honakoa dioen lerrokada bat gehitzea proposatzen dugu:

“11. bis artikulua berria gehitzen zaio 20/2003 Foru Legeari. Hona testua:

11. bis artikulua. Amatasun baimena.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen amatasun baimenak arautzerakoan, kontuan hartuko da familia ugarien egoera, eta lizentziaren aldia luzatuko da langileak sei urte baino gutxiagoko beste seme-alaba batzuk dituenean”

5. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Bigarren xedapen iragankor hau guztiz baztertua da. Martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legeaz gauditutako gai bat berriz ere sartu da hemen inongo justifikaziorik gabe.

6. ZUZENKETA

EUSKO ALKARTASUNA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun testua:

“Familia ugarietarako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legearen bidez Nafarroako Foru Komunitateko familia ugariendako sostengua arautu zen. Lege horretan familia mota hori definitu zen, haren kideek bete beharreko baldintzak ezarri eta familien kategoriak sailkatu ziren. Gainera, familia horiendako onura batzuk ezarri ziren.

Martxoaren 25eko 20/2003ko Foru Legea familien errealitate berrietara egokitzeko beharrak, familia unitate ezberdinekiko errespetuak eta prozedura errazago eta argiago bat erraztu beharrak nahitaez dakarte goian aipatu legearen zati bat aldatzea.

Autonomia erkidegoei dagokie familia ugariaren titulua eman eta berritzea eta, beraz, baita Nafarroako Foru Komunitateari ere.”

Helburu horiek proposatzeko asmoz, honako testu hau proposatzen dugu”:

Zioak: Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoko 44.17 artikulua aitortzen du Nafarroak eskumen osoa duela gizarte laguntzaren arloan, eta hori nahikoa titulua da gure erkidegoak familien babesari buruzko legeak eman ahal izateko, eta bereziki familia ugarietarako buruzko legeak emateko, betiere gure foru erkidegoan gerta litezkeen inguruabarrei erreparatuta.

149.1.1 artikulua ez da klausula orokor bat estatu soziala estatuaren eginkizun berriazko bihurtzen duena; aitzitik, botere publiko guztiak xede horretara bideratuta daude, beren eskumenean esparruaren barruan.

Hau bezalako gaietan Estatuak oinarritzko izaera aplikatzeak berekin dakar gure erkidegoarenak diren eskumen osoen eremua murriztea eta haiek mugatzea behar bezala justifikaturik ez dauden beste interes batzuen pentzutun.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliogabetu eta indarrrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak 1974ko abenduaren 28an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren adopziozko seme izendatu baitzen Francisco Franco Bahamonde.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2005eko apirilaren 7an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da baliogabetu eta indarrrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak 1974ko abenduaren 28an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren adopziozko seme izendatu baitzen Francisco Franco Bahamonde."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da baliogabetu eta indarrrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak 1974ko abenduaren 28an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren adopziozko seme izendatu baitzen Francisco Franco Bahamonde

1. Nafarroako Gobernua premiatzea baliogabetu eta indarrrik gabe utz dezan Nafarroako Foru Diputazioak 1974ko abenduaren 28an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren adopziozko seme izendatu baitzen Francisco Franco Bahamonde.

2. Baliogabetu eta indarrrik gabe uztea Foru Kontseilu Administratiboak 1944ko ekainaren 3an hartu zuen erabakia, zeinaren bidez erabaki baitzen Nafarroako boluntariotzaren urrezko domina sortzea soil-soilik Franco diktadoreari emateko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udal langileak euskalduntzeko programen eta euskara teknikarien finantzaketa berma ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da udal langileak euskalduntzeko programen eta euskara teknikarien finantzaketa berma ditzan."

Legebiltzarrak, 2005eko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2005eko otsailaren 7ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gau-eskolen egungo eskaintza eta finantzaketa berma ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da gau-eskolen egungo eskaintza eta finantzaketa berma ditzan".

Legebiltzarrak, 2005eko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2005eko otsailaren

7ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Toki Administrazioiko Departamentua premiatzen da toki entitateek ematen dituzten zerbitzuak azter ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Toki Administrazioiko Departamentua premiatzen da toki entitateek ematen dituzten zerbitzuak azter ditzan".

Legebiltzarrak, 2005eko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2005eko otsailaren 7ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata pareka ditzan berriz.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da alargun pentsioak eta lanbide arteko gutxieneko soldata pareka ditzan berriz".

Legebiltzarrak, 2005eko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2005eko otsailaren 21eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodena enpresa publikoari jarraibideak ematera Iberdrolako akziodun izateari utz diezaion.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodena enpresa publikoari jarraibideak ematera Iberdrolako akziodun izateari utz diezaion."

Legebiltzarrak, 2005eko apirilaren 7an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertea. Mozio hori 2005eko otsailaren 28ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak hartzera kanpoan bizi diren nafarrek aukera izan dezaten Nafarroako herriaren ordezkariak eta haien proposamen politikoak ezagutzeko.

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak hartzera kanpoan bizi diren nafarrek aukera izan dezaten Nafarroako herriaren ordezkariak eta haien proposamen politikoak ezagutzeko."

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2005eko apirilaren 7an egindako bilkuran, Socialistas del Parla-

mento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaren jakitun dagoela adierazi zuen. Mozio hori 2005eko martxoaren 2ko 17. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erabilera publikoko egoitzetan dauden postu hutsak era zentralizatuan kudea ditzan.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da erabilera publikoko egoitzetan dauden postu hutsak era zentralizatuan kudea ditzan."

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2005eko apirilaren

6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2005eko martxoaren 14ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat izenpe dezan IPESen Emakumearen Dokumentazio Zentroa eta Liburutegiarekin.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da lankidetzaz hitzarmen bat izenpe dezan IPESen Emakumearen Dokumentazio Zentroa eta Liburutegiarekin".

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2005eko apirilaren

6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2005eko martxoaren 21eko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

5/2005 Foru Dekretua, urtarrilaren 17koa, zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.


OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2005eko apirilaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen ondoko Foru Dekretua berrestea: "5/2005 Foru Dekretua, urtarrilaren 17koa, zerga bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena" Dekretu hori 2005eko martxoaren

7ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko apirilaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	